

Euskal Herriko mendi ondarea ezagutzera emateko asmoz, 'Saltus Vasconum' kartografia bilduma sortu du Aranzadik. 25 mapa baino gehiagoren argitalpenarekin, Euskal Herriko mapagintza osatu nahi dute zientzia elkarteko kideek. TESTUA J. Imaz ARGAZKIAK N. Mazkarian / G. Estrada

Euskal mendietako sekretuen mapa

BASKOIEN lurraldea bi zatitan banatzen zuten erromatarrek: Saltus Vasconum (mendialdea) eta Ager Vasconum (lautada). Euskal Herriko lehen zonalde horretako kartografia sorta zabala osatzeari ekin dio, hain justu, Aranzadi Zientzia Elkarteak. Aurkeztu berri duten Aralarreko mapa zehatzaz gain, beste 25 bat plano argitaratzeko asmoa dute bildumaren bultzatzaileek, "euskal mendia eta bertako ondarea" ezagutzera emateko asmoz.

Argitalpen hauen helburua "ez da ez galtzea, baizik eta mendia deskribitzeko" tresna bilakatzea, laburbildu du Imanol Goikotxeak, bildumaren zuzendariak. Toponimoek -edo leku izenek- garrantzi berezia dute mapa hauetan, ahozko izenen bilketa eta horien azterketa dokumentala landu baitute egileek, geroago idazkuntzaren era normalizatu eskaintzeko. Halaber, monumentu megalitikoak, bidezidorrak eta bestelako informazio praktikoa ere ezagutarazi dituzte.

1/30.000 eskalan egindako Aralarreko mapa, *Saltus Vasconum* bildumako lehena, horren guztiaren erakusle da. "Guretzat klasiko bat delako hasi gara inguru honekin", zehaztu du Goikotxeak. Baina helburua Euskal Herriko mapagintza osatzea da, Nafarroako Pirinioen ekialdeko gailurretatik hasi eta Burgosekoko mugetaraino.

Izan ere, ibilbide luzea dauka Aranzadi Zientzia Elkarteak kartografiaren arloan. Tradizio hori berreskuratzeaz gain, mapagintzaren azken aurrerapenekin lan egin dute sorta honetan. Bost metroan behingo maila-kurbak -altuera adierazten duten seinaleak- erabili dituzte. Gainera, Datum ETRS89 kartografia sisteman oinarrituta dago hau guztia; metodo hori, Goikotxeak jakinarazi duenez, Europan ezarriko da eta gero eta erabiliagoak diren GPS tresnak baliatze "ezin hobea da".

Aranzadi Elkarteak bilduma hone-



Mendizale talde bat, Aralar mendizerrako aldapa elurtuetan gora.

tako mapak Interneten eskuragarri jartzeko asmoa dauka, diru kantitate baten ordainetan GPSrako jaitxi ahal izan daitezten.

Boluntario askoren laguntzari esker; "mota guztietako bideak" jaso dituzte. Aralar inguruetako herrietako zerbitzuak ere mapan islatuta daude. Esaterako, ostatua, botika, taxia, kutxazain automatikoa... Bultzatzaileen esanetan, mapak "kultur zama handi batez hornituta" egongo dira.



Imanol Goikotxea (eskuinean) eta Rafa Zubiria, Aranzadiko kideak.

Txindoki izenaren jatorria

'Saltus Vasconum' bildumako zuzendari Imanol Goikotxearen iritziz, zirraragarria da pentsatzea "orain dela 2.000 urte baino gehiago sortutako izenak" gaur egun ere erabiltzen direla jakitea. Sortako lehen alean aspaldiko toponimo horien adibideak aurki daitezke. Izan ere, lan hori osatzeko garaian, toponimoen ahozko izenen bilketa eta horien azterketa dokumentala egin dute. Aralarreko haran, tontor eta parajeen artean, Txindoki mendia da eztabaidatue- netako bat. Larrunari edo Ñaña- rri deitu izan dioten arren, gaur egun Txindoki da erabilerarik zabalduena. Goikotxeak azaldu duenez, tontorraren magalean zegoen -gaur egun desagertuta dago- txabola baten izena zen Txindoki. Eta hortik hasi zitzaion Larrunarriri "Txindokiko punta" deitzen. Aranzadiko kidearen esanetan, "ohikoa" da eskualde batetik bestera leku beraren izena aldatzea. Horren beste adibide bat Irumugarrietako gaina izan daiteke, Nafarroan Intzeko Dorrea bezala ezagutua. Adituek zehaztu zuten, "Bizkar-soil" ere deitu izan diote gain ezagun horri. >J.I.

DATUAK

- **'Saltus Vasconum'**. Euskal Herriko mendietako mapen bilduma osatzen ari da Aranzadi Zientzia Elkarteak. Lehenengo mapa Aralarreko mendizerrarena da.
- **Datu teknikoak**. Bost metroan behingo maila-kurbak erabili dituzte planoetan. Horri esker, lur eremuen gaineko zehaztasuna eskaintzen da, bideetatik kanpo ibiltzea gogoko dutenentzat.

DATUAK

8

- **Euro**. Aleek prezio hori izango dute eta liburudendetan jarri dira salgai.

28 aniversario

PUBLICCLUB
Club Donostiarra de Publicidad, S. L.

Contra la crisis
los mejores precios
en todos los periódicos

Hasta final de año

Anuncios generales, bolsa de trabajo, esquilas, esquilas de aniversario, agradecimientos y financieros (BOE-BORME)

Consúltenos y saldrá ganando

DONOSTIA
Etxaide, 3. Bajo. Edificio Bankoa
Tel. 943 42 04 65 . Fax. 943 42 16 33 e-mail: anuncios@publicclub.com

Ziaboga

Alex Barcenilla y su nuevo equipo del RESTAURANTE ZIABOGA, comunica a sus amigos y clientes que permanecerán abiertos todos los días al mediodía y los viernes y sábados por las noches

Tfno Contacto: 943 51 03 95

Ayuda en Acción
www.ayudaenaccion.org

20 AÑOS DE ACCIÓN,
20 AÑOS DE RESULTADOS

APADRINA UN NIÑO DEL TERCER MUNDO

902 402 404